

musika ♦ OSKORRI

Iturri zaharreko ur berria

Taldea: Oskorri. **Non:** Bilboko Euskalduna jauregian. **Noiz:** Maiatzaren 17an. **Jende kopurua:** 2.000 lagun. **Iraupena:** Ordubete. **Sarrera:** Doan (gonbidapenarekin).

URA aurkeztu zuen Oskorrik EITBren 18. urtebetetze jaian. Era askotako entzuleak izan zituen aurrean eta, dirudie-nez, gehienen gustukoa izan zen ekitaldia. Ohi bezala, Naxo de Felipe izan zen aurkez-lea, baina ez zen gehiegi luza-tu: azalpen laburrak noizean behin, eta kito.

Aste honetan kaleratutako disko berriari ekin zioten; are gehiago, diskoko ordena bere-an agertu ziren hamalau kan-tuak, diskoaren amaieran gordeta dagoena barne. Ikus-puntu horretatik, ekitaldia erronka handia zen taldea-rentzat, azken sei urteotan Marijaneren, Pub Ibiltariaren eta Iparragirrerren laguntasu-nean ibili ondoren. Gainera, diskoko gonbidatu gehienak ez zeuden Euskaldunan, bai-na kantu berriak ederki eta bi-kain jo zituzten.

Horretarako, zenbait lagun-tzaz baliatu ziren: Glen Velez-ek, Paul Winter Consort talde amerikarreko perkusio joleak, ia kantu guztietan hartu zuen parte; askotan hogeitaz hamar zituela ematen zuen, zein tre-bea eta fina den entzun ondo-ren. Galiziatik Faltriqueira laukotea etorri zen; taldeak ez zuen panderorik ekarri —*pandereteirak* dira berez—, baina euskaraz arratiarrak izango balira bezala kantatu zuten; gogora ditzagun *Argi oilarrak* edo *Aizkora etxean*. Eta ezin dugu ahaztu zortzigarren oskorrikidea, Jean Phocas soinu teknikaria, estudioan eta zu-zenean; lan trebea egin zuen ere diskoko efektu eta jokoak berreskuratzeko.

Kantu zerrendari begira, bi modutako piezak atzeman ge-nituen: alde batetik, taldearen



JOXE LACALLE

Oskorri, lan berriaren aurkezpenean.

betiko soinudunak eta, beste aldetik, soinu eta erritmo ber-rituak erakusten zituztenak. Azken horiek dira, nire ustez, interesgarrienak. Aipa ditza-gun arlo horretan *Udabarriko lora ederra*, *Ingrat baten mai-tatzeak* balada —Anton La-txak kantatu zuen—, *Argi oila-rrak*, *Albaiterua* eta *Ihintza* instrumentu hutsezkoak —batez ere bigarrena, kon-ponketa bereziei esker—, *Ai, ene Maialentxo!* —Anton, mul-tilaren rolean, Naxo, berriz, neskarenean, tuntun, txirula, biolin, Glen Velezen ahozko perkusio eta guzti—, *Txikertxu polit hori* —oso txalotua izan zen— edo *Iturri zaharretik* liri-koa —bi aldiz jo behar izan zu-ten hasieran izugarritzko bu-rrunba gertatu baitzen; kantu horretan Naxok autoharpa jo zuen—, besteak beste.

Kanalizazioa atzerrira eramatea

Azken atalean eta diskoaren gidoari jarraituz, *Kaka zure-tzako* bertso marroi eta zaha-rrak —Faltriqueira agertu zi-ren berririo, nahiz eta diskoan ez hartu parte— eta *Letzion de epistolea*, diskoan gordeta agertzen dena, kantu grego-riano moduan eginda —«...oliorum, patatorum, aza-

franorum, per omnia sekula sekulorum»—.

Gure artean izateagatik as-kotan ez gara konturatzen Os-korri supertaldea denik, hau da, musikari bakoitza bere lan tresnarekin apartekoa dela. Bixente —gitarra akustiko eta elektrikoak, bouzoukia, man-dolina, Xabier —biolin elektri-koa—, Anton —gitarra akusti-koa, tronpeta, fliskornioa—, Josu —xirula, flauta, tuntu-na, alboka—, Jose —saxoak, flauta— edo Txarli —baxua eta kontrabaxua—, guztiak di-ra gauza ezberdinak egiteko gai. Eta hor dago emaitza: kantu bakoitzak ez du zeriku-sirik hurrengoarekin, Osko-rriren giroa galdu gabe.

JosAnton Artzeren poeman esaten den moduan, «iturri za-harretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura». Hori da Oskorriren apustua: zaharra berritzea. Hurrengo pausoa hauxe da: ur horren kanalizazioa atzerrietara era-matea, kanpoan ere gure ur fresko hau edan dezaten —ekitaldiaren orduan Kepa Junkera Tokiorantz zihoan—. Ea oraingoan lortzen duten, ilusioa eta gogoia ez dira falta-ko; 23 diskoren ondoren, ba-da garaia.

Joseba Martin

dantza ♦ CONJUNTO DE FALDA Y CHAQUETA

Adiezina harrapatu nahian

Izenburua: Conjunto de falda y chaqueta. **Konpainia:** Emilio Greco & PC. **Zuzendaritza eta koreografia:** E. Greco, P. Scholten. **Kontzeptua, argiztapena eta musika:** E. Greco, P. Scholten. **Soinu-collagea:** W. Selles. **Jantziak:** C. Portier. **Dantzariak:** B. Bermudez, R. Hernandez, B. Meneses, K. Selji Morino, I. Vazquez. **Non:** Donostiako Victoria Eugenia antzokian. **Noiz:** Maiatzak 13.

EMIO Grecorena izan da, zalantzarik gabe, aurtengo Maiatza Dantzanen egita-rauan ikusmin handien sor-tu duen dantza lanetarikoa bat. Bera baino arinago eto-rrri da gure artera italiar koreografoaren ospea, eta jakinguraz joan nintzen berak sortutako *Conjunto de falda y chaqueta* ikustera.

Lehenengo eta behin, esan beharra dago Peter C. Scholten dramaturgo ale-maniarrarekin kolaboratu duela Emiok bere orain arteko lan koreografiko guz-tiaetan, eta bien artean ida-tzi dutela *Zazpi beharri-za* izeneko manifestua, bertan aldarrikatzen dutela ezarrita dagoena ezbaian jartzeko premia, pentsa-mendu zalantzarokorrei bidea ematearen beharra eta egia bilatzearen betekizuna, egia osoa kontatzea ezinezkoa izan arren.

Izan ere, bete-betean esan dezakegu erreferentzia ezin hobeak eta hain xede argiak dituzten bi sortzaileok ez direla mugatu mugimendu harmoniatsuak jorratzera edo edertasun hutsa bila-tzera, eta nolabaiteko artega sortu dutela ikusi berri dugun lanaren estetika eze-rosoarekin.

Gozotasunik gabeko ikuskizuna

Bi ezaugarri nabarmentzen dira gozotasunik gabeko lan

honetan: estetika latza alde batetik, eta dantzaren zorroztasuna bestetik. Ita-liar-alemaniar bikotearen planteamendu estetikoan gorri koloreko lauki handi batek hartzen du eszenako eremu gehiena eta dantza-riak lauki horretatik kanpo mugitzen dira gehienbat, askotan taulako bazter batean, eta ikusleengandik ahalik eta urrunen gainera.

Bestalde, estetika horren barruan kokatu behar ditu-gu argiztapen hotz-hotza, plastikozko jantzien zurita-sun gatzgabea eta baita ere interesik gabeko soinu-banda esperimentalak, pasarte heroiko bakar batzuk burrunbekin eta hainbat gailuk sortutako zaratekin nahastatzen dituenak.

Dantzari dagokionez, gai-tasun eta prestakuntza itzela erakusten dute bost dantzariak eta, aldi berean, nabariak dira koreografoa-ren ahaleginak ohikoa ez den zerbait sortzeko. Berak dioen moduan, «adiezina dena harrapatu nahian» dabilta eta, ildo horretatik, bat-bateko aurreratze eta atzeraegiteak tartekatzen dituzte, mugimendurik ezean garatzen dira pasarte batzuk, keinu bortxatuak balet jarrerekin batera doaz, eta gehienetan asal-datua da taldearen mugi-mendua.

Dena dela, ariketa esteti-ko harrigarri hori ikusten nuen bitartean, zera galde-tzen nion etengabe neure buruari: «Merezi al du hain-beste ahalegin egitea bene-tan ezer ez komunikatzeko? Ez al gara aurkitzen euro-par huskeria tipiko baten aurrean?».

Agus Perez



ESKELAK



ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(943) 300 222